

pen-datuez horniturik. Oso interesgarria, itzulpenarenarekin batera, testu haietako baliabide lexiko-fraseologikoak ezagutzeko:

“Horren bidez, begiraldi arin batean baieztatu ahal izan ditugu egileek egindako hizkeraren karakterizazioa. Izan ere, testu horiek ez dute, zenbait aldetatik, zerikusirik XX. mendean, ia hasieratik ikusiko ditugun gehienekin. Hizkuntz baliabide guztiek norabide berera jotzen dute: euskaratzen da euskaldun batzuek hobeto uler dezaten, eta ez, euskaraz egiten dela erakusteko. Testu horiek balio sinboliko handia zuten hizkuntzaren ospeari zegokionez, baina hizkuntzak ez zuen hori pairatzen, geroago hainbatetan gertatuko zen bezala. Jendeak uler zezan idazten zuten *legueetaco liburua* gaztelaniak *código* zioen tokian, *guizontalde edo comisinoia* erdarazko *comisión*-en ordean, *convenio edo tratu* beste *convenio*-ren baliokide. Harrigarri gertatuko zaio hainbati ohartzea *askatasun* hitza ez zela erabiltzen, edo *uzenbide* hitzaren adierak, hainbat, eta oso ezberdinak zirela. Gutxi dira Larramendiren ereduari egindako keinuak. *Linargui* da behin eta berriz erabilitako hitza, *bacaraondea* (*monarquía* edo argibidea aurretik duela) eta beste bakarren bat”.

Bibliografia ondo hornitu batek osatzen duen hurrengo atalak, eta hiru testu inprimaturen facsimilak jasotzen dituen “Irudiak” izenekoak ixten dute liburu hau.

Antton Elosegi Aldasoro



CALENDARIO de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco

Kepa Fernández de Larrinoa (dirección y estudio preliminar). – Vitoria-Gasteiz : Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003. – 458 p. : il. col. y n. ; 24 cm. – ISBN: 84-457-2060-0

Euskal dantza tradizionalen katalogo erabilgarria eskaintzen du liburu honek. Dantza eta jaiei buruzko fitxak egutegiaren arabera sailkatuta bildu dira bertan. Euskal Herriko dantza tradizionalak noiz eta non aurkitzeko gida izateaz gain, dantza horiei buruzko oinarrizko ezaugarri eta deskribapenak eskaintzen ditu.

Katalogo honekin borobildu du Kepa Fernández de Larrinoak 1995ean abiatutako lan egitasmoa. Dantzaren sustapenerako zenbait ekimen bideratu zituen Eusko Jaurlearitzaren Kultura Sailak, eta dantza tradizionalaren alorrean ondarearen katalogazioa eta ikerketa lanen sustapena bultzatu nahi izan ziren. Helburu horrekin hiru lan nagusi jarri zituen abian Fernández de Larrinoak. Batetik euskal dantza tradizionalaren bibliografia zabal eta eguneratua gidatu zuen eta 1998an ikusi zuen argia lan horrek: *Invitación al estudio de la danza tradicional en el País Vasco: recopilación bibliográfica y comentario crítico*. Horrekin batera, folklorea eta dantza tradizionalaren ikerketarako kontzeptu teoriko eta metodologikoak bildu eta lau ikertzaile lagun hartuta tresna horien aplikazio praktikoa bultzatu zuen Euskal Herriko bazterreko eskualdetako dantza tradizionalaren ikerketen bidez. 1998an bertan argitaratu zen lan hori: *Fronteras y puentes culturales: danza tradicional e identidad social*. Bi horiekin batera

abiatu zen esku artean dugun lana, euskal dantza tradizionalaren ondarearen katalogoa osatzea zen helburua, eta bilketa lan horretan gertatutako zenbait arazok 2003 arte atzeratu dute lanaren argitaratzea. Egindako bilketa lanaren balioak merezi zuen papereratzea eta lan-tresna bikaina dute orain eskura euskal dantza tradizionalaren ikertzaileek, irakasleek, dantzariak eta oro har alor hori interesekoa dutenek.

Tokian tokiko dantzen fitxek osatzen dute lanaren muin nagusia, baina horren aurretik katalogoa gauzatzeko lanaren nondik norakoak argituz Fernández de Larrinoak idatzitako aurre-azterketa dator. Liburuaren aurrekariak zeintzuk izan diren azaltzen du bertan eta erabilitako metodologiari buruzko argibideak ematen ditu. Folklore eta dantzei buruz autoreak duen ikuspegi dinamikoaz azaldu eta euskal dantza tradizionalen alorrean aurretik egin izan diren katalogazio lanen berri ematen du. Kulturaren eta gizartearen ikerketa korrante teorikoek dantza tradizionalen azterketarako egindako hurbilketa modu desberdinen errepasoa egiten du katalogoari bidea ematen dion atariko horretan.

Euskal dantza tradizionalak sailkatzerakoan aurretik egin diren ahaleginetan erabili izan diren irizpideak aipatzen ditu Fernández de Larrinoak. Horrela, Juan Antonio Urbeltz-ek irizpide morfologikoak eta koreografikoak erabili zituen, antzeko bidetik José Antonio Quijerek irizpide formalak eta koreografikoak, Julio Caro Barojak egutegiaren arabera sailkatu zituen jaiak eta Angel Muruak irizpide geografikoak erabili ditu. Kepa Fernández de Larrinoak egutegiaren aldeko hautua egin du.

Dantzak egutegiaren arabera antolatzeke erabaki horrekin folklorearen izaera dinamiko eta aldakorra nabarmendu eta folklorearen ikuspegi estatikoak sustatu dituzten begirada erromantikoetatik aldendu nahi du. Alde horretatik, katalogoak etengabeko aldaketa prozesuan bizi den alorraren ispilu izan nahi du. Gertatzen ari diren aldaketa horietako batzuk aipatzen ditu autoreak. Adibidez tradizioen biziraupena ziurtatzeko aurrera eramandako estrategietako batzuk argitu ditu: parte hartzaileen adinean jaitsiera, emakumeek lehen ez zuten protagonismoa eskuratzea, jai egitura berriak, beste eskualde batzuetako mozorroak imitatzea, koreografia eta estetika sormena, e.a.

Guztira Euskal Herriko dantza eta erromerien 270 fitxa jaso dituzte katalogo honetan. Esan bezala, ospakizunaren dataren arabera sailkatuta datoz, urtariletik abendura. Fitxa bakoitzean ospakizunaren dataz gain ondoko informazio eremuak jaso dira: herria, ospakizunaren izena, doinuak, koreografiaren deskribapen laburrak, musika-tresnak, jantziak, tresnak, iruzkinak eta bibliografia. Erantsitako agiriak ere dakartza liburuak eta horietan datu bilketarako erabilitako galdetegiak, datu-basearen egitura eta berri-emaielen datuak jaso dira. Kepa Fernández de Larrinoaren gidaritzapean bederatzi ikertzailek jardun dute katalogo hau osatzeko informazio bilketa lana egiten: Imanol Sarria, José Alfonso Antequera, Lierni Otamendi, Mikel Urbeltz, Jon Fernández, Marta Etxebarria, Elena González de Artaz, Xabier Itzaina eta Joxemiel Bidador. Beste bi, Unai Martiartu eta Irene Txurruka, aritu dira datuen antolaketa lanean, eta Emilio Xabier Dueñas-en argazkiek laguntzen dituzte deskribapenak.

Dantza tradizionalak Euskal Herrian duen hedapenaren argazkia eskaintzen du liburuak. Argazki horretan dantza tradizional propioak dituztenak agertu dira, aldian behin (urtean behin normalean, salbuespenak badira ere) baina data eta ospakizunak errepikatuz, berezkozat dituzten dantzak ematen dituztenak. Folklore taldeen artean *autoktonoak* izenarekin ezagutu izan direnak osatzen dute batez ere talde hori. Argazkitik kanpo geratu dira folklore dantzak egin arren, ez ospakizun, ez errepertorio propioak ez duten dantza taldeak. Bigarren horien hauspoan milaka gaztek edaten du dantza tradizionalen iturritik, baina haien jarduna, itxuraz ezaugarri bereizgarriak gabe-

koa izanik, itzalera kondentatua da. Azken hamarkadetan dantza errepertorio eta ospakizun propioak birsortu edo berriak sortu, eta, anonimotasun horretatik ihes egi-tea lortu duten hainbat adibide aurki daitezke katalogo honetan. Ziur aski, datu base-aren eguneraketa batek erakutsiko liguke bilketa lana egin zenetik argia ikusi duen arte pasa den tartean ere sortu direla bertan jaso beharreko dantza eta ospakizun berriak.

Calendario de fiestas y danzas tradicionales dantza tradizionalaren zale eta iker-tzaileentzat lanerako tresna egokia da. Dantza batzuen fitxak beste batzuenak baino osatuagoak eta zehatzagoak dira, eta hutsuneak eta orokortasunak ere badira tarte-an, baina bilketa lan garrantzitsua izan da, eta ur sakonagoetan murgildu ahal izateko lehen hurbilketarako abiapuntu egokia da.

Horrelako lanen beharra du euskal dantza tradizionalak. Dantza tradizionalaren inguruko bibliografia zabala bada ere (ikus aipatutako *Invitación al estudio de la danza tradicional en el País Vasco: recopilación bibliográfica y comentario crítico*, 1998) gutxi dira deskripzio eta dibulgazio lanekin egin diren sintesi edo bilduma saioak. Alor horretan lanean diharduten dantzari, dantza-maisu eta musikariek, zein oinarrizko informazioa eskuratu nahi dutenek, han eta hemen argitaratutako artikulua eta aldizka-rietan arakatu behar dute, eta oinarrizko korpusa osatzeak luze joko du. Kepa Fernández de Larrinoak gidatu dituen bi lan hauekin, bibliografiarekin eta egutegi erara emandako katalogo honekin, urrats garrantzitsua eman da, eta lan osatuago eta eguneratuagoetarako oinarri onak jarri dira. Izango al dute segidarik?

Oier Araolaza



DIAGNÓSTICO, retos e indicadores: estrategia territorial de Navarra: poniendo en valor el territorio

Manuel Bear y José Antonio Cruz (redac.). – Pamplona : Navarra de Suelo Residencial, 2003. – 136 p. : il. col., gráf., mapas ; 28 cm. – ISBN: 84-607-7371-X

1. Valoración General

Este libro es un resultado intermedio de una ambiciosa operación de planificación a largo plazo iniciada por el Gobierno de Navarra mediante la ley Foral 35/2002 de 20 de diciembre y conocida como Estrategia Territorial de Navarra (ETN, en adelante). El estudio que conlleva la ETN ha sido realizado por la agrupación de empresas “Navarra XXI”, (integrada por la Cámara de Comercio e Industria, Centro de Estudios Económicos Tomillo S.L.U., Eide Consultores S.L., Ecotec Research&Consulting, L.T.D. y Basarte S.L.). El libro objeto de recensión está editado por la Dirección General de Ordenación del Territorio y Vivienda del Gobierno de Navarra. La citada ley define la ETN como: